

# Zertan den Euskadi

2011ko Lehen Seihiakoa  
Ekonomia Analisia

- **Munduko ekonomiak hazkunde indartsua dakar, garatze bidean diren ekonomiek bultzatuta.** Europan tentsio finantzarioak goiti ibiliko dira, zor-krisia konpontzen ez den artean.
- **Espainia: berrindartzea baldintzatua dago defizit helburuak betetzera,** finantza-sistemaren zati bat azkar birkapitalizatzeraz eta lan-merkatuko erreformen handinahitasunera.
- **Euskadi: hedatze-aldiko desoreka txikiagoak lagun,** krisiaren eragina murriztagoa izan da, eta berrindartzea azkar eta indartsuagoa.
- **Euskal lan-merkatuaren berezko ezaugarriek langabezia-tasa txikiagoa laguntzen dute,** eta baita berorren jaitziera ere, BPGren hazkunde-tasa apalagoekin.



## Aurkibidea

1. Laburpena.....	5
2. Euskal ekonomia zertan den.....	7
3. Euskadi: suspertze motel baina iraunkorra.....	13
4. Eskualdekako BPGren estimazioak denbora errealean: Euskadirako emaitzen azterketa.....	23
5. Hazkunde ekonomikoa eta langabezia Euskadin.....	28
Eranskina.....	34
6. Jarduera ekonomikoari buruzko BBVAren inkesta: Euskadiko egoera aztertzen.....	38
7. Taulak.....	40



# 1. Laburpena

Finantza-merkatuetako tentsioek argi erakutsi dute garatutako ekonomiek erreforma-prozesuan eta kontu publikoen finkapenean aurrera egiten jarraitu behar dutela, batez ere arrisku subiranoari dagokionez. Espainiako ekonomiaren kasuan, gainera, presioa Estatura ez ezik autonomia-erkidegoetara ere zabaldu da, eta indar handiagoz gainera. Autonomia-erkidegoen finantziario-beharrek, 2010. urtean defizitaren helburua ez betetzeak eta 2011ko lehen hiruhilekoko aurrekontuen exekuzioak zalantzak sorrarazi dituzte planteatutako helburuen sinesgarritasunaren inguruan. Dena den, autonomia-erkidego batzuek bete dituzte beren helburuak (Euskadik, besteak beste), eta horrek eta Estatuak egindako doikuntzek aukera eman dute 2010ean administrazio publikoetarako helburu bateratura iristeko. Hortaz, zehaztutako planak gauzatzeko ahaleginaren jarraitutasuna ezinbestekoa da Estatuaren eta autonomia-erkidegoen arrisku-primak saihesteko, eta Espainiako ekonomiaren finantzatze-baldintzak hobetzea ekarriko du horrek. Espainia guztirako, arrisku-priman oinarritzko 100 puntu murrizteak banku-spreadak murrizteko eta inbertsio pribatua eta kontsumoa hazteko aukera emango luke; eta BPGn puntu portzentual bateko hazkundera eta enpleguan % 0,8koa egiteko modua emango luke.

Euskal ekonomiaren testuinguruan, duela urte erdi ikus zitekeen eszenatoki berari eusten zaio funtsean. Garatze bidean diren ekonomiek, oro har, nahiko hazkunde sendoa erakusten dute, eta presioa eransten dio horrek lehengaien prezioari; garatutako herrialdeek, berriz, beren hazkundera mugatuta dagoela ikusten dute, sektore pribatuaren bankuen diferentzialak, eta sektore publikoarena, arintzeko beharrarengatik. Baldintza horietan, munduak hazkunde indartsua izaten jarraituko du, % 4,4 ingurukoa 2011n; baina garatutako herrialdeek eta, bereziki, Europak beren hazkundera murriztu egingo dute apur bat, inflazioaren gainean arriskuak sortuko dira, eta, kontu publikoak finkatuz, barne-eskaria murriztu beharra izango da. Inportatutako lehengaien presioak eta berori inflaziora zabaltzeko aukerak bultzatuta, Europako Banku Zentralak (tasak gehitu ditu apirilean) AEBetako Erreserba Federalak baino sendoago erantzungo du, susperraldi ekonomikoaren inguruan zalantza handiagoak baititu kontuan horrek.

Politika fiskalaren eta zor-krisiaren arloko baterako ekintzen inguruan Europan hartutako erabakiak aurrerapen positiboak badira ere, merkatuentzat ez dira nahikoa oraindik: Europa osoan elkarrekin jardutera iristeko ekintza erabakigarrien falta sumatzen dute, ekintza horrek, aldi berean, Ekonomia eta Diru Batasuneko herrialde batzuen kaudimenari buruzko zalantzak saihestu ditzan.

Espainiak, berriz, iraganean metatutako desorekak zuzentzeko prozesuarekin jarraitzen du, hau da, sektore pribatuaren eta, gaur egun, sektore publikoaren gehiegizko zorpetzea arintzeko beharrari aurre egin behar dio, eta, pixkana bada ere, langabezia-tasa murrizten lagunduko duen erreforma-prozesuan aurrera jarraitu behar du. Doitze horien ondorioz, barne-eskaria ahula izango da, eta hazkundera batez ere kanpo-merkatuetara irtenez lor daitekeenaren mende egongo da. Hortaz, Espainiako ekonomiaren hazkundera ahul jarraituko du, % 0,9ren inguruan aurten. Lurraldean arteko desberdintasunak, besteak beste, autonomia-erkidegoek kanpoko merkatuetara begira duten esposizioaren mende egongo dira. Kanpo-sektore dinamikoagoa duten autonomia-erkidegoek eta, bereziki, gorabidean diren merkatuetara zuzentzen direnek hazkunde-diferentzial positiboa lor dezakete horrela. 2011n abantaila atera dezaketen autonomia-erkidegoen artean dago Euskadi, argi eta garbi, kanpora irekiago baitago eta EAGLES herrialdeetara zuzentzen diren esportazioek pisu handiagoa baitute (Espainiako batez bestekoa baino 10 puntu gehiago).

Dena den, eskualdearen hazkundera baldintzatzen duten faktore osagarriak ere badaude, eta Euskadiren kasuan, berriro ere inpaktu negatibo txikiagoa adierazten dute: Espainiako administrazio publikoetan kontu publikoak finkatzeko prozesua batez ere autonomia-erkidegoetan funtساتzen da 2011n. Sektore publikoaren doitze-plana betetzeko BPGn murriztu behar diren 3,2 puntuetatik, 1,5 puntu autonomia-erkidegoei dagozkie: 2010. urtearen amaieran zuten % 2,8ko defizita % 1,3ra murriztu beharko dute. Berriro ere, Euskadi nahiko egoera onuragarrian dago, BPGren % 2,2ko defizitarekin, beste autonomia-erkidego batzuek baino doitze-behar txikiagoa baitu. Beraz, kontsumo publikoari eusteko beharra txikiagoa izango da 2011n, eta, beraz, eragin txikiagoa izango du barne-eskarian; horixe islatzen du aurtengo gure eszenatoki makroekonomikoak. Beraz, Euskadiko BPGk % 1,3ren inguruko hazkundera izan dezake aurten.

Testuinguru horretan, erne jarraitu behar dugu kontu publikoen finkatze-prozesuan, desorekak lehenbailehen zuzenduz, defizita eta zorra maila eramangarrietara eramanez epe erdira eta luzera, eta horretarako zein neurri gauzatzeko diren argi adieraziz. Doitu behar horren arrazoietak

bat merkatuen presioa da. Baina faktore horretatik haratago, komeni da enpresentzat eta herritarrentzat inbertsioetarako eta enplegua sortzeko egokia izango den sektore publiko bat lortzea, administrazio-zamak arinduz, erregulazioak hobetuz eta legedia sinplifikatuz.

EUSKADI ZERTAN DEN lehen argitalpen honetan, gainera, interes berezia duten beste hiru gai ere jorratzen dira: lehenengo eta behin, BBVA Researchek Euskadiko BPGren aurreikuspen-eredua aurkeztu du. BBVA Researchek erabilitako ereduaren berezitasuna hauxe da: autonomia-erkidego guztietarako BPGren hazkunde-ereduen multzo osoa biltzen du, eta aukera ematen du autonomia-erkidego guztietarako INEren Eskualdeko Kontabilitatearekin bateragarriak diren emaitzak lortzeko. Gainera, euskal ekonomiaren inguruan eskura dugun informazioa denbora errealean aztertzeko aukera ere ematen du ereduak, eta, horrela, ekonomiaren pulsu termikoa abiaburutzat hartuta, erabakiak hartzeko bidea errazten du.

Bigarrenik, argitalpen honetan Euskadin hazkundeak eta langabeziak duten erlazioaren azterketa egiten da, Okunen Legean oinarritutako estimazioaren bidez. Azterketa horren zergatia bertako ekonomiaren eta lan-merkatuen ezaugarriek funtsatzen dute: batetik, nabarmen Estatuko batez bestekoaren azpitik dagoen langabezia-tasa, eta, bestetik, erlatiboki, oso behin-behinekotasun tasa txikia. Funtsean, Espainiakoa baino hazkunde maila txikiagoa izanda, euskal ekonomiak langabezia murrizteko duen gaitasun handiagoa islatzen dute lortu diren emaitzek, horren zergatia lan-merkatuko partaidetza tasa txikiagoan legokelarik.

Hirugarrenik, BBVAren Euskadiko bulego sarean egindako Ekonomia Jarduerari buruzko Inkestaren lehen emaitzak aurkeztu dira. Beste autonomia-erkidego batzuetan (Katalunian duela 20 urtetik) hiru hilean behin egiten den inkesta hori duela urtebete kaleratu zen BBVAren Espainia iparraldeko bulego-sarean, eta Euskadi, Nafarroa, Errioxa, Aragoi eta Kantabria hartzen ditu sare horrek. Inkesta egin zaienen unibertsoa BBVAren salmenta taldea da, bere inguru hurbilean gertatzen dena bereziki ezagutzen duena; eta giro ekonomikoari buruzko inkesta-egitura baten bidez, ekonomiaren jokabideari pultsua azkar, zuzen eta kalitatez hartzeko aukera ematen du horrek. Jada beste autonomia-erkidego batzuetan, tresna horrek erakutsi du analisi ekonomikoak egiteko gaitasuna duela, eta eskualdeko BPG edo beste aldagai batzuk aurreratu lagundu du. Inkesta gehiago egiten diren neurrian, errazagoa izango da Euskadiko aldagai nagusiei buruzko iragarpenak egitea. Une hauetan, inkesta horren emaitzek susperraldi ekonomikoaren inguruko zalantzak eta finantza-merkatuetan dauden tentsioak islatzen dituzte.


## 2. Euskal ekonomia zertan den

### Munduko ekonomiaren hazkundeak sendo jarraituko du, baina arriskuek beheranzko joera ekar dezakete

Munduko ekonomiak oso erritmo bizian hazten jarraitzen du, eta munduko BPGren % 4,4ko hazkundera aurreikusten da, bai 2011rako eta bai 2012rako, batez ere garatze bidean diren ekonomiei esker. Hala ere, lehengaien prezioek adierazten duten mehatxuak areagotu egin du ziurgabetasuna, eta hazkunderako eta inflaziorako arriskua dakarkie eskualde gehienei. Krisi global honen garapenarekin batera, BBVA Researchen aurreko argitalpenetan identifikatu ziren tokiko arriskuek bere horretan jarraitzen dute, gutxi gorabehera. Ziurrenik, Europan jarraitu egingo du estres finantzarioak, batez ere Grezian, Portugalen eta Irlandan. Estatu Batuetan, azken aldian kontu publikoak finkatzeko prozesuari ekiteko proposamenen inguruan sortu diren zurrumurruak ere areagotu egingo dute ziurgabetasuna merkatuetan. Azkenik, garatze bidean diren merkatuak gainberotzen dituzten presioek jarraitu egin dute, eta garrantzi handia izan dezakete Hego Amerikan, lehengaien prezioak handitzeari emandako bulkadaren ondorioz.


Petrolioaren krisiaren eragin nagusia (behin-behinekoa, baina nahikoa iraungo duena oinarri dugun eszenatokian) nabarmendu egingo da prezioetan. Eta gorakada horren aurrean, diru-agintaritza gehienak behartuta egongo dira interes-tasetan igoerak aurreratzera. Hala ere, aniztasun handia nabari da banku zentral nagusien ikuspegieta, petrolioaren eta beste lehengai batzuen prezioek gora egiteak ekarriko dituen arriskuak saihesteko orduan. Zehazki, Estatu Batuetan eta Europan, banku zentralak diru-politikari buruzko lerrabidea aldatzen ari dira, bakoitza bere erritmoan. Horren ondorioz, arrisku-balantzak interes-tasak handitzeko probabilitatea erakusten du. Zehazki, Europako Banku Zentralak (EBZ) inflazio-arrisku oro zokoratu nahi du, prebentzio-neurriak hartuz (hortik etorri da, beraz, apirilean izandako lehen igoera). Bestalde, Erreserba Federalak nahiago izan du itxaron eta arriskuak mamitzen badira soilik jokatu, susperraldiaren iraunkortasunaren inguruko ziurgabetasuna oinarri hartuta.

1. Grafikoa  
BPG globalaren hazkundera eta ekarpenak (%)



Iturria: BBVA Research eta NDF

2. Grafikoa  
Interes tasa ofizialen gaineko aurreikuspen aldaketak, 2010 amaieratik 2011ko otsailera (%)



Iturria: BBVA Research

Europan, martxoko goi-bileretan egin diren hitzarmenak harrera ona izan duten aurrerapenak dira, bai erreforma ekonomikoei dagokienez eta bai etorkizunean sor daitezkeen krisiei aurrea hartzen laguntzeko. Horretaz gain, EFSFn eta EFSMn txertatu diren aldaketak positiboak dira, likidezia-arazoei aurre egiteko; baina ez dira aski. Nazioarteko laguntza eskatu duten Europako periferiako hiru herrialdeen egoerekin lotuta (Grezia, Irlanda eta Portugal) sortutako tentsioek berdin jarraituko dute, eta baita horietakoren baten kaudimenaren inguruko zalantzek ere. Zalantza iraunkor horiek, aurrera begira ere, zaildu egingo dute ekonomia horien finantziazioa, diferentzial subiranoek goitik jarraituko dute, eta zor publikoaren esparruan eramangarritasun-


arazorik ez duten herrialdeetara heda daitezke, Espainiara, adibidez. Horregatik, kaudimenik eza gertatzen den kasuetarako, ikuspegi integrala hartu behar du Europak zorraren krisiari irtenbidea emateko orduan, eta irtenbide horrek kontuan hartu beharko du inbertsiogile pribatuei zor guztia ez ordaintzeak, Europako gainerako herrialdeak kutsatzeko arriskua handi dezakeela; horregatik, ezinbestekoa da jarrera hori kontu handiz diseinatzea.

### Espainian, susperraldiak motela izaten jarraitzen du, nahiz eta 2011ko bigarren seiuhilekoan enplegu-sorkuntza garbia izan daitekeen

BPGren hiruhilekoko hazkundea % 0,2koa izan da 10-4Hn, eta hiruhileko hori horrela amaitu ondoren, Espainiako ekonomiak jardueraren antzeko hobekuntza erakutsiz hasi du 2011. urtea, BPGren barnean bizpahiru hamarrenen inguruan kokatu baita. Txosten hau ixterakoan eskura ditugun egoeraren adierazleetatik abiatuta egin diren aurreikuspenen arabera, hauek dira hazkunde horren osagaien ezaugarriak: kanpo-eskariaren bultzada eta barne-eskariaren ahulezia; halaber, hobekuntza-erritmo ahul horrekin, Espainiako ekonomia ez da gai oraindik enplegua sortzeko. Apirilean eta maiatzean jakin ziren datuek ere joera horixe berresten dute 2011ko bigarren hiruhilekorako, eta ekainean horrela jarraituz gero, BPGren hiruhilekoko hazkundea % 0,3koa litzateke azkenean. Laburtzeko: Espainiako ekonomiaren epe laburreko hazkunde ahularen biderei buruz egin genuen diagnostikoa ez da modu esanguratsuan aldatu.

3. Grafikoa


**Espainia: 11-2Hrako BPGren hazkundearen aurreikuspenak MICA-BBVA Ereduan, estimazio-dataren arabera (% H/H)**



Iturria: BBVA Research

4. Grafikoa

**Espainia: behatutako BPGren hazkundea eta MICA-BBVA Ereduaren aurreikuspenak (% H/H)**



\* Eguno aurreikuspena: 2011ko maiatzaren 6a  
Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

Aurrera begira ere, ez da espero aldaketa handirik hazkunde-ereduan; hala ere, badira zenbait elementu, BBVA Researchen azken argitalpenetan zehaztu ziren faktoreekin batera, iragarpenen ikusmugan ereduaren osaketa nabarmen baldintzatzen dutenak, eta, areago, kasuren batean hazkundearen beheranzko joera lerratzen dutenak. Lehenengo eta behin, munduan garrantzi handia duten ekonomietan izan diren gertaerak (Japoniako hondamendi naturala) edo Espainiatik gertuen dauden ekonomietan garrantzia izan dutenak (Portugali laguntzeko plana) kontuan hartuta, hauxe aurrera dezakegu: oro har, Espainiako ekonomia ez da oso lotuta egon Japoniako ekonomiari eta Portugalgoari, eta eutsi egin zaie modu globalean eta Europan hazteko itxaropenei; horregatik, Espainiako esportazioetarako garrantzia duen inguruneak Espainiaren hazkunderako egokia izaten jarraituko du, aurreikuspen honi dagokion ikusmugan.


Bigarrenik, barne-eskari pribatuaren oinarritzkoen ahuleziari eta abiarazte-prozesuaren ondorioz eragile pribatuek egingo duten ibilbideari petrolioaren prezioetan goranzko joerak ezartzeko presioa erantsi behar zaie, eta baita EBZk finkatutako erreferentziatzko interes-tasen igoerak aurreratzea ere, igoera horiek apalak izan arren. Eskari agregatua suspertzeko erritmoan beheranzko joera bat adierazten dute bi faktoreek, nahiz eta horrek oro har izango duen inpaktua moderatua izango dela eta aurreikuspenen ikusmugaren amaiera aldean kontzentratuko dela espero den. Dena den, eta Erreserba Federalarekin alderatuta EBZk erakutsi duen oldarkortasun



handiagoaren ondorioetako bat euroaren ganbio-tasa dolarrekiko duela hiru hilabete espero zitekeena baino apur bat handiagoa izatea izan bada ere, argi esan behar dugu Espainiako esportazioetan lehiakortasuna nabarmen galtzerik ez dela espero: petrolioaren prezioaren gorakada eta 10-2Sn zergetan izan diren aldaketak kenduta, euroaren eremuarekiko prezioen diferentzialak nahiko maila moderatuetan jarraituko du.

5. Grafikoa


### Espainia: barne-eskariak BPGren hazkundeari egindako ekarpenak



Iturria: BBVA Research

6. Grafikoa

### Espainia: BPGren hiruhilekoko hazkundeari egindako ekarpenak




\* Egungo aurreikuspena: 2011ko maiatzaren 6a  
Iturria: BBVA Research, INEn oinarritua

Ordain gisa, zor subiranoaren merkatuetan tentsio finantzarioek iraun badute ere, Espainiako ekonomian alde positiboa sumatzen da Europako periferiako gainerako herrialdeekin alderatuta, hainbat arrazoiengatik: kontu publikoak finkatzeko baterako helburuetan bete beharrekoak bete dira, kontu publikoak ematerakoan gardentasun handiagoz jokatu da, finantza-sektoreko atal mugatu baten berregituraketa-prozesua sustatzeko ahalegina egin da, eta egiturazko erreforma sakonak sustatu dira, besteak beste, epe erdira kontu publikoen eramangarritasunari lotutakoak (pentsioak) edo lan-erreformari lotutakoak. Epe erdira Espainiako ekonomiaren funtzionamenduan neurri horiek eraginkortasunaren aldetik izan ditzaketen eragin positiboak alde batera utzita, ezberdintasun esanguratsua dago oraindik Espainiaren eta periferiako gainontzeko herrialdeen arrisku-primetan; bai sektore publikorako eta bai pribaturako traba txikiagoa adierazten du horrek, eta Espainiako gizartearen ahaleginak justifikatzen ditu. 2012an petrolioaren prezioek eta interes-tasen igoerek izango dituzten ekarpen negatiboa ez dute erabat orekatzen doikuntza eta erreforma horiek; baina 2011ko hazkunderan joera beharantz berrikusi beharra saihesten dute, eta hurrengo urtean jarduera eta enpleguan doikuntza txikiagoa egin beharko da horiei esker. Azken batean, finantza-sistemako erreformei (sistema horren berregituraketaren amaieratik oso urrun gaude oraindik), lan-merkatukoei (negoziazio kolektiboa modernizatzeko zain jarraitzen du merkatu horrek) eta kontu publikoen doikuntzakoei (oso zorrotz jarraitu behar dute 2011n) dagokienez oraindik jarduketa-tarte zabala badago ere, hartutako neurriek Espainiako ekonomiari buruzko espektatibak hobetzen laguntzen dute.

Azkenik, Espainiako ekonomian kontu publikoen finkatze-prozesua luzaezina denez, sektore publikoak, epe laburrera, hazkunderan modu negatiboan eragiten jarraituko du; baina, orain, 2010ean defizitaren esparruko helburuak bete ez dituzten autonomia-erkidegoetan nabarmenagoa izango da eragin hori, autonomia-erkidego horietan 2011ko helburura iristeko plan handizaleagoa ezarri beharko baitute.

7. Grafikoa


**Autonomia-erkidegoak: 2010eko defizita Eskualdeko BPGren arabera ehunekoetan**



Oharra: defizita 2008ko likidazio negatiboaren eragina txertatu gabe  
Iturria: BBVA Research, EOMn oinarrituta

8. Grafikoa

**Autonomia-erkidegoak: diru-sarreraren eta gastuen bilakaera BPGren arabera ehunekoetan**




Iturria: BBVA Research, EOMn oinarrituta

Laburbilduz, Espainiako ekonomiak epe labur eta erdira poliki-poliki egingo duela aurrera aurreikus daiteke, eta, urte osoa hartuta, ekonomia % 0,9 haziko dela. BBVA Researchen beste zenbait argitalpenetan aurreratutakoaren ildotik, susperraldi iraunkorra eta enplegu-sorkuntza garbia 2011ko azken zatian iritsiko dira. 2012ko hazkundea (% 1,6) nahikoa izango da enplegu garbia sortzeko, baina ez langabezia-tasa modu esanguratsuan murrizteko, betiere, lanean ari den biztanleriaren bilakaera normala oinarritzat hartuta. Eskualdeetan, hazkundearen erritmoan aniztasuna nabarmenduko da berriro ere, baina aurreko ekitaldi ekonomikoan behatutakoa baino maila apalagoan. 2011-2012rako eszenatoki ekonomiko baldintzatzen duten faktoreekiko autonomia-erkidegoek duten loturaren arabera, jardueraren susperraldia desberdina izango da, batez ere 2011n.

9. Grafikoa


**BPGren hazkundea autonomia-erkidegoetan 2011 (%)**



Iturria: BBVA Research

10. Grafikoa

**BPGren hazkundea autonomia-erkidegoetan 2012 (%)**



Iturria: BBVA Research

**Erreforma prozesuak jarraitu egin behar du, neurri handizaleak hartuta**


Azken hilabeteetan, egiturazko erreformak egiteak eta abian jarri diren doikuntzek arrisku-primatik bereizteko aukera eman diote Espainiari, Ekonomia eta Diru Batasuneko (EDB) periferiako beste herrialde batzuekin alderatuta. Hala ere, arrisku-primak oso handia izaten jarraitzen du, eta finantza-merkatuetan tentsio berriak sortzen badira, Espainia ere kutsa dezake. Arrisku-primak horrek zor subiranoaren kaudimenarekiko halako konfiantza falta bat islatzen du eta hori ez dator bat berorren oinarritzarekin<sup>1</sup>; izan ere, zor publikoa eramangarria izango da, baita gauzatzeko

1: Ikus 2011ko maiatzeko Situación España.

aukera gutxiko eszenatokieta ere. Arrisku-prima altu hori justifikatzen duten arrazoietatik haratago, eta Europaren eraikuntza-prozesuaz merkatuetan dagoen ziurgabetasuna islatzen dutela kontuan hartuta, esan behar da pisu handia dutela Espainiako ekonomia suspertzeko prozesuan.

11. Grafikoa


**Herri Administrazioak:  
aurrekontu-saldoak (BPGren %)**



(\*) Lurralde-finantziarioaren likidazio negatiboak barne  
Iturria: BBVA Research, EOMn oinarrituta

12. Grafikoa

**Doikuntza fiskalari ekarpena (BPGren %)**



Iturria: BBVA Research, EOMn oinarrituta


Alde horretatik, Espainiako ekonomian egin beharreko erreformek eta doikuntzek nazioarteko finantza-merkatuen konfiantza handituko badute ere, batez ere garrantzi handiko egiturazko arazoei irtenbidea aurkitzeko balioko dute, eta horien artean bat nabarmentzen da, zalantzarik gabe: langabezia-tasa altua. Horixe da, azken batean, erreforma horien helbururik garrantzitsuenak. Beharrezkoak diren erreformak zenbat eta lehenago eta kontu publikoak eta modu handizaleagoan gauzatu, orduan eta azkarrago emango zaie irtenbidea egiturazko arazo horiei.

BBVA Researchen argitalpenetan behin eta berriro azpimarratu denaren ildotik, erronka nagusia lehenbailehen hazkunderako eta enplegua sortzeko zirkulu bertutetsua eratzea da, finantza-sistema berregituratuz, lan-merkatua erreformatuz eta finkatuz, eta garrantzi handiko beste neurri batzuk ere hartuz, noski (giza kapitala hobetzea, administrazio-kargak murriztea eta sinplifikatzea, erregulazio-hobekuntzak egitea, lehia sustatzea, etab).

Finantza-sistemaren birkapitalizazioa modu egokian amaitzearen mende dago, neurri handi batean, ekonomiaren suspertzea, eta horren barnean, ezinbestekoa da kapital pribatua azkar eta modu esanguratsuan sartzea. Horrela, abian den berregituratze-planak azpimarratu beharreko elementu positiboak ditu. Lehenengo, sistema berregituratzeko ibilbide-orria eskaintzen digu, eta azken urteetan horixe ari ziren eskatzen merkatuak. Bigarrenik, kapital pribatuaren parte-hartzea sustatzen du, eta FROBetik laguntzak lortzeko, kutxek banku bihurtu behar dute, hala, atzerriko inbertsiogileen aurrean gardenago bihurtzeko. Azkenik, FROBek, edozein kasutan, gutxieneko kapitalera iristea bermatzen du. Hala ere, ezinbestekoa da balantzeen onbideratzea eta berregituratze-prozesua bizkor eta behin betiko betetzea (FROB laguntzak jasotzen dituzten erakundeetako kapitaletik atereaz), erakunde guztien kaudimena eta likidotasuna lehenbailehen normalizatzeko, kopuru eta prezio egokietan. Horrela, nazioarteko inbertsiogileek gure finantza-sistemarengan konfiantza handiagoa izango dute, eta ekonomia osoaren barneko kreditu-eskariari erantzuteko egoera hobea izango du eskaintzak, ekonomia hori suspertzen denean. Ildo horretatik, kontuan hartu behar da geldialditik atera eta abian jartzeko prozesua, enpresen eta, horrekin batera, familien kreditu-eskarian hazkunde-tasa negatiboak eragingo dituenak, bateragarria dela erabat enpresa eta sektore askotatik gero eta gehiago egingo diren eskariekin. Izan ere, Espainiako ekonomiaren doikuntza sektorialak enpresa batzuetako lana eta kapitala beste batzuetan kokatzea dakar, eta beraz, inbertsio-egitasmo fidagarrietarako finantziario-behar berriak sortuko dira etengabe, eta finantza-sistemak murrizketarik gabe erantzun behar die behar horiei. Horretarako, ezinbestekoa da erakunde guztiek likidotasun eta kaudimen-baldintza egokiak izatea, behar horiei erantzun diezaieten.

13. Grafikoa


**Espainia: Hazkunde potentzialari buruzko estimazioa erakunde arabera (%)**



Fitch (Sovereigns: Full Rating Report March 2011), Moody's (Global Sovereign: Credit Analysis March 2011) y Standard & Poor's (Global Credit Portal: Ratings Direct March 2011)  
Iturria: BBVA Research, NDF, OCDE, Europako Batzordea eta EOM, erakundeetan oinarrituta

14. Grafikoa

**Espainia / Alemania arrisku-prima, 5 urterako bonua, pb**



Iturria: BBVA Research

Bigarrenik, 2010ean agregatuan helburu fiskala lortu bazen ere, etsigarria izan zen berori betetzerakoan autonomia-erkidegoetan sumatu zen heterogeneotasuna. Oso kezagarria da hori, 2011ko defizitean aurreikusitako doikuntzaren zati handi bat horietan eta gastua murrizteko duten gaitasunean oinarritzen baita. Ikuspegi horretatik, positiboa da Estatuak bere esku dauzkan baliabideak erabiltzea, autonomia-erkidegoak aurtengo helburuei atxikitzea bultzatzeko. Dena den, jada urteko lehen bost hilabeteak pasatu direnean, kezkatzeko modukoa da autonomia-erkidego batzuek aurrekontuak egonkortzeko konpromisoak betetzeko hartuko duten bidetari buruz oraindik akordiorik ez izatea, autonomia-erkidego horiek Espainiako BPGren ia % 50 izan arren. Gainera, lehen hiruhilekoan, autonomia-erkidegoak BPGren % 0,47ko defizitera iritsi ziren, eta horrek adierazten du, helburua lorgarria bada ere, agian ez direla ari behar besteko ahalegina egiten, batik bat gastuaren esparruan.

Alde horretatik, Gobernuak eta Zerga eta Finantza Politikako Kontseiluak (ZFPK) erne jarraitu behar dute, eta berehala erantzun, baldin eta orain arte iragarri diren neurriak aurtengo helburuak lortzeko nahikoa ez direla erakusten duen ebidentziak sortzen badira. 2011tik 2014ra bitartean Egonkortasun Programa betetzen bada, eta ezinbestekoa da betetzea, Espainiako zor publikoak gutxitzeko ibilbideari ekingo lioke 2014tik aurrera, eta Europako batez bestekoaren azpitik leudekeen mailak eskuratzeko aukera emango lioke horrek, argi eta garbi. Helburu horiek lortzeko, 2011. urtean % 6ko defizitera iritsi ondoren, administrazio publikoek hurrengo bi urteetan neurri osagarriak iragarri behar dituzte, BPGren % 2ren baliokideak, hain zuzen; Europako Batzordeari aurkeztutako azken Egonkortasun Planak, gastu murrizketen aipamen orokorra baino ez du egiten.


Azkenik, negoziazio kolektiboaren erreforma eta lan-merkatuko eraginkortasunik eza zuzentzea erabakigarriak dira enplegua sortuko duen eta hazkundera ekarriko duen ibilbideari lehenbailehen ekiteko, langabezia-tasak % 21a gainditzen duen ekonomia batean. Onartu ezinezko egoera da, maila agregatuan, soldaten moderazio sakona egitea eskatzen du, eta baita soldaten malgutasun handiagoa ere, enpresetan enplegua erruz sor dadin. Soldaten moderazio hori -eta horrekin batera, enpresa-marjinen hazkunde nominala mugatzea- ezinbestekoa da datozen urteetan, desinflazio lehiakorreko estrategia batean, gure langabezia-tasak EDBkoaren gainetik jarraitzen duen bitartean.

### 3. Euskadi: suspertze motel baina iraunkorra

Euskadiko ekonomiak Espainiakoak baino desoreka txikiagoak erakutsi zituen azken hedapenaldian, eta hazkunde positiborako bidea hartzen ari da progresiboki. 2009an BPGk behera egin arren, eta, batez ere, 2010ean esportazioek izandako susperraldiak lagunduta, hiruhilekoko hazkunde-tasa positiboak ditu 2009ko azken hiruhilekotik, eta urte arteko % 0,9ko hazkundera izan du 2011ko lehenengo hiruhilekoan. Beraz, azken hiruhilekoetan, Espainiak baino hazkunde handixeagoa izaten jarraitu du, eta joera hori orokorra izan da ia krisialdiaren hasieratik, 2009ko bigarren erdian gertatutako eten txikia salbu. Hala, aurreko zikloan lortutako maximoa baino % 3,5 beherago dago, eta Espainia, aldiz, % 4 beherago. BPGren ikuspegitik, Euskadiko ekonomiak suspertze motela baina iraunkorra duela esan dezakegu, eta enplegua suntsitzeko prozesua amaitu dela.

15. Grafikoa


**Euskadi eta Espainia: BPGren hazkundera (u/u %)**



Iturria: Eustat eta BBVA Research

16. Grafikoa

**Gizarte Segurantzako afiliatzea\***



\* Urtarokotasun-datuak zuzenduta, hiruhilekoen arteko aldakuntza, milako pertsonatan  
Iturria: Lan eta Immigrazio Ministerioa eta BBVA Research

#### **Euskadik funtsezko desberdintasunak erakutsi ditu Espainiako eskualdeen batez bestekoarekiko epe laburreko hazkundera bereizten duten faktoreetan.**

Epe laburrean eta epe erdian ekonomiaren hazkundera eragiten duten faktore bereizgarrien artean, Euskal Autonomia Erkidegoa ondoko hiru faktore hauetan desbideratzen da Espainiako batez bestekotik, hoberako: etxebizitzaren gehiegizko eskaintza urriagoa, langabezia-tasa txikiagoa (behin-behinekotasun txikiagoa eta biztanleriaren hezkuntza maila handiagoa du) eta posizio hobea 2010eko erdialdetik Espainiako administrazioak murgilduta dauden kontu fiskalak finkatzeko prozesuan; prozesu horrek gutxienez 2013 arte iraun beharko du.

Kontu publikoak finkatzeak ekarriko duen eraginak bi alderdi ditu: alde batetik, autonomia-erkidegoko gobernuak berak finkatzeko duen beharraren araberakoa da (batez bestekoa baino txikiagoa Euskadin), eta, bestetik, erkidego bakoitzak Estatuko administrazioaren gastuarekiko duen mendekotasunaren araberakoa, doikuntza-prozesuan hori ere. Azken alderdi horrek garrantzi handiagoa du batez bestekoaren azpiko errenta duten Espainiako autonomia-erkidegoetan, funtsen hartzaile direnez, administrazio zentralak gastua eta inbertsioa murrizteak eragin handiagoa izango baitu horien hazkundera. Ez da hori Euskadiren kasua.

1. Koadroa


Epe labur eta erdira hazkundera eragiten duten faktoreak. Espainiako batez bestearekiko aldeak

	Etxebizitz- engehiegizko eskaintza	Eskualdeko esportazi- oetan autoek duten gar- rantzia	Zor pribatua	Langabezia	Autonomia- erkidegoen zorra	Finkapen publikoa	Kanpora irekitzea
<b>Euskadi</b>	<b>+</b>			<b>+</b>		<b>+</b>	
Asturias			+				
Kantabria	+			+			
Madril						+	
Nafarroa		-		+		+	+
Aragoi		-					-
Errioxa							
Galizia		-					
Gaztela eta Leon		-	+				
Balearrak			-		-		+
Katalunia					-		+
Extremadura			+			-	-
Kanariak				-			+
Murtzia							
Gaztela- Mantxa				-	-	-	-
Valentzia					-		
Andaluzia			-	-		-	-

Iturria: BBVA Research

17. Grafikoa


Arrisku-faktoreen indize orokorra eta  
2010eko hazkundera buruzko aurreikuspenak



Iturria: BBVA Research eta INE

18. Grafikoa


Eraikuntza-sektorearen doikuntza



Iturria: BBVA Research eta INE

19. Grafikoa

**Behin-behinekotasuna eta langabezia (2010)**




Iturria: INE eta BBVA Research

Hiru faktore horien eta kanpo-merkatuari begira duen egoera desberdinaren ondorioz, 2008tik krisiak eragin txikiagoa izan du Euskadiko BPGn eta enpleguan Espainiakoetan baino. Alde horiek murriztu egin daitezke 2011n, eta, batez ere, 2012an, barne-eskaria indartzen den heinean, Espainian gehiago indartuko baita.

20. Grafikoa


**Euskadi eta Espainia: BPG 08-1H = 100**



Iturria: Eustat, INE eta BBVA Research

21. Grafikoa

**Euskadi: BPG eta KEG (h/h, %, UEEZ)**




Iturria: Eustat

Higiezinen merkatuan desoreka txikiagoa izatearen eta enpleguak jokaera hobea erakutsi izanaren abantailak bat hauxe da: Euskadiko sektore pribatuak geldialdi txikiagoa izan zuen hedapen-aldian, eta, horrekin batera, errenta erlatiboa handiagoa da; horregatik, kontsumoa doitzeko beharra ere txikiagoa da. Horren ondorioz, Euskadik barne-eskariaren esparruan jasan du krisia; kontsumoak behera egin zuen 2008ko lehen seihiakotik 2010eko lehen hiruhilekora bitartean, baina Euskadik egindako doikuntza desoreka handiagoko Estatuko beste inguru batzuetan egindakoa baino txikiagoa izan zen. Orduz geroztik suspertzen ari da apurka-apurka, % 1eko erritmo geldoan, langabeziaren hazkundeak eragin handia izan baitu familien konfiantzan eta errentan.

22. Grafikoa


**Euskadi eta Espainia:  
txikizkako merkataritzaren indizea (joera, u/u %)**



Iturria: INE eta BBVA Research

23. Grafikoa

**Ekonomia-jardueren pertzepzioari buruzko  
Euskadiko inkestak (muturreko erantzunen saldoa)**



Iturria: BBVA eta Euskobarometroa

Dena den, Euskadiko ekonomiaren konfiantza-indizeek, ondoz ondoko Euskobarometroek (2009. urtetik) nahiz BBVAren bulego sarean egindako inkestek (ikus 6. atala) ezkortasuna nagusi dela erakusten dute, eta Euskadi suspertze iraunkorretik urrun kokatzen dute. Beraz, nahiz eta kapitalaren erakuntza gordinaren bilakaerak eta saldu gabeko etxebizitzaren stock txikiagoak Euskadi inbertsioaren doitzea amaitzetik hurbilago legoikeela adierazi, zor subiranoaren nazioarteko merkatuetako tentsio hazkorrek eta uneotan bidean diren egiturazko erreformek Espainiako ekonomian izan dezaketen eraginari buruzko zalantzek, inbertsioaren suspertze iraunkorra oztupa dezakete epe laburrean.

**Eraikuntza-sektorea doitzeko prozesua, Espainiako batez bestekoa baino txikiagoa, amaitzen ari da**

Eraikuntza-sektoreak Euskadiko ekonomian pisu txikiagoa duenez eta saldu gabeko etxebizitzaren kopurua Espainiako batez bestekoa baino txikiagoa denez, eraikuntza-sektorea doitzeko prozesua Espainiako gainerako inguruetan baino lehenago amaituko dela pentsa dezakegu. Izan ere, 2010ean nahiz 2011ko lehen hilabeteetan, etxebizitzetarako obra-baimenen doitzea txikiagoa izan da.


Eskariari dagokionez, 2010. urtean Espainian izan duen jokaerak zergetan gertatutako zenbait aldaketaren eragina jasan du: BEZaren igoera uztailean, edo etxebizitza erosteagatiko kenkariaren desagerpena 2011ko urtariletik aurrera. Euskadiren kasuan, foru-aldundiek ez dute azken neurri hori aplikatu, eta, hala ere, etxebizitzaren eskaria Espainian baino handiagoa izan da 2010ean. Hainbat faktorek azaltzen dute berezitasun hori: krisia iritsi aurretik desoreka gutxiago metatu izanak, ekonomiaren jokaera erlatibo hobekak eta, horren ondorioz, enpleguaren suntsipen txikiagoak. Bestalde, babestutako etxebizitzek pisu handiagoa dute Euskadiko ekonomian, eta horrek ere azal dezake eskariaren jokaera positiboa, erosteko aukera errazten baitu, batez ere krisi garaian: saldutako etxebizitzaren % 21ek babes motaren bat zuen; Espainian, aldiz, % 11,3koa da batez besteko hori.

Salneurriari dagokionez, INEk jasotako etxebizitzaren salneurrien indizeak, notario-erregistroetan oinarritutakoak, Euskadin 11-1Hn saldutako etxebizitzaren salneurriaren beherakada % 3,2koa (u/u) izan dela erakusten du. Salneurriak metatutako beherakada, salneurrien une gorenarekiko, % 18,8koa da jada, Espainiako % 14,9koa batez bestekoa baino handiagoa (termino errealetan, % 25ekoa eta % 21ekoa, hurrenez hurren). Beraz, Espainiako beste toki batzuetan ez bezala, Euskadin etxebizitzaren salneurriaren zuzenketa gehientsuena gauzatu dela esan daiteke. Gainera, saldu gabeko etxebizitzaren stocka txikiagoa da Euskadin (parkearen % 2,1, Espainiakoaren % 4,4ren aurrean), eta horrek esan nahi du doitu beharreko desorekak txikiagoak direla.



24. Grafikoa


**Obra berriko etxebizitzaren eraikuntza-baimenak (u/u, UEEZ)**



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

25. Grafikoa

**Etxeen salerosketa (h/h UEEZ)**




Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

**Defizitarekin lotutako helburuak bete dituela eta zorra beste autonomia-erkidego batzuetan baino txikiagoa dela kontuan hartuta, Euskadik kontu fiskalak finkatzeko ahaleginari eutsi behar dio, baina jardueraren gaineko eragina txikiagoa izango da**

Krisiaren ondorioz, 2008an Euskadiko kontu publikoek defizita erregistratu zuten 90eko urteen amaieratik lehen aldiz. Defizit horiek diru-sarrerak nabarmen jaistearen nahiz gastua handitzearen ondorio izan dira, batez ere 2009an. Testuinguru hori izanik, 2010ean, Eusko Jaurlaritzak, Europar Batasunak egindako eskaerei erantzuteko, kontu publikoak doitzeko neurriak abiarazi zituen; neurri horiek eta zergen bidezko diru-sarrerak handitzeak –ekonomiaren susperraldi ahularen ondorio– metatutako defizita modu nabarmenean murriztea ekarri zuten 2010ean. Euskadik 2010ean erregistratutako defizita eskualdeko BPGren % 2,2koa izan zen (2009an baino 1,7 pp gutxiago), eta aurrekontuak egonkortzeko helburua bete duten bost autonomia-erkidegoetako bat da. Defizitaren kopuru hori kontuan hartuta, Euskadiren zorra BPGren % 7,4koa izan zen 2010ean, 2009an baino ia 4 pp gehiago. Hala ere, Euskadi zor erlatibo txikiena duten bost autonomia-erkidegoetako bat da, eta, beraz, Euskadiren egoera honea da, gainerako autonomia-erkidegoen batez bestekoarekin alderatuta.

26. Grafikoa


**Euskadi: aurrekontu-saldo ez-finantzarioa (sarrera arruntren %)**



Iturria: BBVA Research, EOMn oinarrituta

27. Grafikoa

**Autonomia-erkidegoak: posizio erlatiboa 2010ean (eskualdeko BPGren %)**



Iturria: BBVA Research, EOMn eta BdEn oinarrituta


Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzak 2011rako aurrekontuak onartu zituen, 2010ean jorratutako soiltasun fiskalaren bidetik, eta Gobernu zentralarekin hitzartutako kontu publikoen sendotzea onartuz; horregatik, aurtengo urterako, eskualdeko BPGren % 1,3ko defizita aurreikusi dute. Eusko Jaurlaritzak espero duen susperraldi ekonomikoak eta foru-aldundiek onartutako

neurri arau-emaike zenbaitek 2011ko diru-sarrera ez-finantzarioak eskualdeko BPGren % 13,5en inguruan kokaraziko dituzte, 2010ean aitortutakoengandik ia puntu portzentual bat goiti. Bestalde, 2010eko maiatzean onartutako soiltasun fiskalerako planari eutsita, aurreikus daiteke 2011n gastu ez-finantzarioak doitzen joango direla, eta % 14,5en inguruan kokatuko direla: aurreko urtean aitortutako obligazioak baino ia puntu portzentual bat gutxiago BPGn. Aurreikuspen horiek berresten badira, Euskal Autonomia Erkidegoko zorra bere BPGren % 8,5en inguruan kokatutako da urte amaieran; eta, beraz, defizitaren eta zor publikoaren bilakaeran joera positiboagoa berreskuratuko.

Badirudi Eusko Jaurlaritzak 2011ko lehen hiruhilekoko exekuzioari buruz argitaratutako datuek berretsi egiten dutela kontu publikoak finkatzeko joera hori, nahiz eta datu horiek ez diren urte osoko bilakaeraren adierazgarri. Horrela, diru-sarrera ez-finantzarioak % 10etik gora hazi dira 2010ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta, eta gastu ez-finantzarioak, berriz, % 0,5 inguru jaitsi dira. Beraz: 2011ko lehen hiruhilekoaren amaieran, Euskadiko defizita BPGren % 0,78ren inguruan kokatu da, eta berorren zorra, % 7,3ren inguruan.

28. Grafikoa


**Euskadiko Autonomia Erkidegoko aurrekontuen hiruhilekoko exekuzioa (eskualdeko BPGren %)**



Iturria: BBVA Research, Eusko Jaurlaritzan eta INEn oinarrituta

29. Grafikoa

**Euskadiko Autonomia Erkidegoa: defizita eta zorraren gehikuntza (BPGren %)**



Iturria: BBVA Research, EOM eta BdEn oinarrituta

2. Koadroa

**Euskal Autonomia Erkidegoko zifra nagusiak**  
**Finkatutako aurrekontuan ezagututako eskubide eta obligazioen arabera**

Milioi euro	2007	2008	2009	2010 (aurre.)	2011 (aurrei.)
<b>Diru-sarrera ez-finantzarioak</b>	8.992	8.436	7.503	8.502	9.357
BPGren %	13,8	12,4	11,5	12,7	13,5
<b>Gastu ez-finantzarioak</b>	8.179	9.030	10.011	9.940	10.188
BPGren %	12,6	13,3	15,3	14,9	14,7
<b>Aurrezki gordina</b>	1.766	563	-1.191	-145	286
Sarrera arrunten %	19,7	6,7	-16,1	-1,7	3,2
<b>Saldo ez-finantzarioa</b>	813	-594	-2.508	-1.438	-831
Sarrera arrunten %	9,1	-7,1	-33,8	-17,2	-9,2
<b>Karga finantzarioa</b> (sarrera arrunten %)	2,7	2,3	1,2	2,5	3,7
<b>Zorpetze garbia. Beharra</b>	639	-651	-2.719	-1.547	-1.018
<b>Promemoria</b>					
<b>Defizita (BPGren %)</b>	1,09	-1,18	-3,89	-2,24	-1,30
<b>Zorra (BPGren %)</b>	1,00	1,30	3,80	7,40	8,54
<b>BPG nominala</b>	65.152	67.941	65.455	66.900	69.478


(aurrei.) Likidazioaren aurrerapena (aurrei.) Hasierako aurrekontuak  
Iturria: BBVA Research, EOMn, Eusko Jaurlaritzan, INEn eta BdEn oinarrituta

Horrez gain, badira auzitegietan bi gatazka, kontu publikoak finkatzeko bide hori betetzerakoan halako arrisku bat adierazten dutenak. Bata Estatuarekin lotutako "Rover auzia" da, BEZaren bilketari dagokiona, gaur egun Auzitegi Gorenean dagoena, eta 435M€-ko zenbatekora iristen dena (Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuaren % 3,8). 1990etik 2005era, marka horretako autoen inportazioa eta salmenta Araiako (Araba) "lehorreko portutik" egin zen, eta horren ondorioz, Euskadiko eta Estatuko administrazioak lehiari ari dira, bildutako kopuruak nori dagozkion. Bestea Luxenburgoko Auzitegiak ekainaren 9an emandako epaiari dagokio, 1990eko urteetako "opor fiskal" zeritzenei, hain zuzen ("minioporrei" eta inbertsioengatik dedukzioei buruzko prozedurarekin jarraitzen du), nahiz eta ogasun publikorako garrantzi txikiagoa duen; gutxienez 40 milioi euroko isuna eragingo du kasu horrek (Eusko Jaurlaritzak 2011rako onartutako aurrekontuaren % 0,4). Dena den, kasu horretan, gerta daiteke enpresei kobratu behar izatea, eta horrek ekarriko lituzkeen inplikazioak oso kontuan hartu behar dira, hasi berri den susperraldian zailtasun gehigarri bat adieraz dezaketenez.

2011ko lehen hiruhilekoan, esportazioek joera positiboari eutsi zioten, nahiz eta dinamismo gutxiago erakutsi eta osoko kopuruarekiko halako moteltze bat ekarriko dutela ere aurreikus daitekeen: 2011ko lehen hiruhilekoan, ondasun eta zerbitzuen esportazioen hiruhileko arteko hazkundea % 6,6koa izan zen (% 19,5 u/u). Aduanei dagokienez, garai bererako, Datacomex-ek % 31ko hazkunde nominala islatzen du ondasunen esportazioan. Dena den, konposizioan, garrantzi handiko aldaketa bat nabari da: hiruhileko horretako hazkundea energia-produktuen salmenta bizkortzearen ondorioa da, ekipo-ondasunen eta tartekoen kaltetan; izan ere, esportazioetan duten pisuaren arabera egin behar lituzketenak baino txikiagoak izan baitira atal horien ekarpenak, eta esportazioen ekarpenaren iraunkortasuna horien mende legoke, hain zuzen.

30. Grafikoa


**Euskadiko 2010eko esportazio-egitura: ekarpenak sektoreka, 2010ean eta 2011-1Hn**



Iturria: BBVA Research Datacomex oinarri hartuta

31. Grafikoa

**Euskaditik eta Espainiatik Eagles-era egindako esportazioen % eta Espainiako esportazioen Euskadiko kuota**




(\*) EAGLES: Brasil, Txina, Egipto, India, Indonesia, Korea, Mexiko, Errusia, Taiwan, Turkia

Iturria: BBVA Research Datacomex oinarri hartuta

Uneotan esportazioek izan duten jokabide horretatik halako zalantza bat sortu bada ere, euren konposizio geografikoa lagungarri izan daiteke etorkizunean ere Espainiako batez bestekoaren gainetik dauden hazkunde-erritmo iraunkorrei eusteko, jakinik epe erdiko hazkundearen, garatze bidean diren ekonomiak izango direla nagusi. Izan ere, bai Espainiako esportazioetan eta bai Euskadikoetan, Europak bi heren hartzen ditu eta helmuga diren lehen 10 herrialdeak berberak dira bi kasuetan; Frantziako, Italiako, Erresuma Batuko eta Estatu Batuetako ohiko merkatuek 2010ean kanpora egindako salmenten % 42 hartzen dute, nola Euskadin hala Espainian. Hala ere, 2003tik, Euskadik merkatu berriak jorratzeari ekin dio: 2010ean, Euskadiko esportazioen % 18 EAGLEs herrialdeetara zuzentzen ziren<sup>2</sup> (Espainiako kopuru osoa baino 6 puntu gehiago), eta joerak gorantz jarraitzen du.


2: EAGLEs: Brasil, Txina, Egipto, India, Indonesia, Korea, Mexiko, Errusia, Taiwan, Turkia

32. Grafikoa  
Esportazio errealak (% h/h) UEEZ datuak



Iturria: BBVA Research OEM eta Datacomex oinarri hartuta

33. Grafikoa  
Euskadi: esportazioen egitura (2010eko  
ondasun guztien gaineko esportazioen %)




Iturria: Datacomex eta BBVA Research

### Industria eta zerbitzuak, lau hiruhileko jada hazkunde positiboarekin

Eskaintzaren ikuspegitik, industriak eta merkatu-zerbitzuek hazkunderan ekarpen positiboa izan dute, hurrenez hurren, azken lau eta bost hiruhilekotan, eta hazkunde horretan beste horrenbeste hamarrenekoren ekarpena ere egin dute; bestalde, merkatu-zerbitzuak ez direnek batez beste hamarren bateko ekarpena egin dute azken lau hiruhilekoetan, eta eraikuntza 2008tik doitze-prozesuan da; euskal ekonomiaren urte arteko hazkundera 4 hamarren txikiagoa izatea dakar horrek.

34. Grafikoa  
Euskadiko BPG eta hazkunderako ekarpenak



Iturria: Eustat eta BBVA Research

Industriak Euskadiko BPGren hazkunderari egindako ekarpena handitzen joan da azken hiruhilekoetan, eta 2011ko lehen hiruhilekoan zazpi hamarrenetara iritsi da. Hazkunde horren jatorria kanpo eskaria da, hazkunde hori gauzatzeko aukera esportazioek eman baitute: 2010eko bigarren hiruhilekotik aurrera goititu ziren horiek, batik bat, ekipo-ondasunen adarrak haztean (makina-erreminta eta garraiorako materiala adibidez) eta semimanufaktura metalikoa haztean. Horren ondorioz, Bilboko portuan garraiatutako zama % 20 handitu zen 2010ean. Euskadiren bazkide komertzial nagusiak, Frantzia eta Alemania (2010ean horietatik ziren Euskadiko esportazioen % 31ren helmuga) hurrenez hurren % 1,6ko eta % 3,6ko eritmoan ari ziren hazten, 2009an behatutako BPGren atzeraldia gaindituta.

Aparteko aipamena merezi du turismo sektoreak. 2002. urtetik Euskadiko BPGn % 5etik gorako pisua du<sup>3</sup>; 2006tik urtean 2 milioi bidaiari baino gehiago biltzen ditu, eta 2009tik, Euskadik izandako bidaiari-sarreraren bilakaera Espainiakoa baino hobea da. Euskal ekonomiaren kasuan turismoak ekonomia-hazkunderari modu absolutuan egindako ekarpena Espainiakoa baino txikiagoa bada ere (turismoaren pisua bikoitza baino gehiago da Espainian), turismoaren euskal sektorearen aurrerapenak beronen dibertsifikazioa islatzen du.

3. Koadroa

**Bidaiarien sarrera lurraldean (aldaketa %)**

	2009		2010		2011ko urt-api	
	Euskadi	Espainia	Euskadi	Espainia	Euskadi	Espainia
Turisten sarrera (guztira)	-2,7	-7,1	9,5	6,4	11,7	5,4
Espainian bizi direnak	0,3	-4,5	6,4	2,6	13,2	0,6
Atzeritarrak	-8,7	-10,5	16,3	11,9	7,8	12,9
Gastu turistikoa	-7,1	-7,2	4,9	2,0	n.d.	8,7

Iturria: INE eta BBVA Research

**Kanpo-sektoreak Espainiako batez bestekoaren gainerako hazkundera ahalbidetuko du 2011n**

2011n, Espainiako gainerako lurraldeekin alderatuta, euskal ekonomiaren alde jokatu du bertako esportazioen konposizio geografiko hobea; izan ere, munduko hazkundera hobe probesteko aukera emango du, eta desoreka txikiagoak ditu bere barnean, bai gainzorpetze publiko eta pribatuaren esparruan eta bai lan-merkatuan. Dena den, Espainiako arrisku-primen gainerako presioak (finantziario publiko eta pribatuari eragiten diote arrisku prima horiek), eta euskal ekonomiaren barneko konfiantzaren adierazleek argi erakusten dute honako hau: suspertzeko gaitasunari buruzko zalantzak, Europa osoari eragiten dioten horietan, euskal ekonomiara ere hedatu dira. Testuinguru horretan, pentsatzekoa da barne-ekonomiak oraindik ahulezia-sintomak erakutsiko dituela urte amaiera bitartean; aurreko urteko hazkundera-maila bertan jarraituko duela kontsumo pribatuak, eta hazkundera sustatzeko, kanpo-sektorearen gaitasunaren mende egongo dela neurri handi batean. Garatze bidean diren herrialdeek bilakaera ona izan dute, hazkunderako gaitasun handiagoa erakutsiz, eta horiekin alderatuta Europak izango duen jokabidearen inguruan sortutako zalantzek esportazioen dibertsifikatze-prozesuarekin jarraitzeko aholkatzen digute, eta merkatuak hedatzeko prozesua (EAGLES herrialdeetara, adibidez) bizkortu beharko da horretarako.

Epe erdira aldiz, giza kapitalak eta I+G alorrak Euskadiren hazkundera potentziala sustatzearen alde egin dezakete, nahiz eta bere populazio-piramideak (eta immigrazio txikiak) halako estualdi batzuk eragin ditzakeen lan-merkatuan; jada horrelakorik gertatu dela ere esan daiteke (ikus Okunen legea, 6. atala).

4. Koadroa

**Euskadi: Barne Produktu Gordina**

u/u, %	2007	2008	2009	2010	2011
BPG	4,2	1,3	-3,8	0,3	1,3
Azken kontsumo-gastua	4,1	1,9	-2,2	0,9	0,7
Familien azken kontsumo-gastua	3,6	0,6	-3,7	0,8	0,6
Administrazio publikoetako azken kontsumo-gastua	6,4	7,0	3,7	1,4	1,2
Kapitalaren eraketa gordina	4,7	-2,2	-15,4	-6,1	-1,1
Barne eskaria (*)	4,5	0,8	-6,1	-0,8	0,3
Kanpo eskaria (*)	-0,3	0,5	2,3	1,0	1,0
Atzerriko eskaria					
Esportazioak guztira	5,4	0,0	-18,4	8,3	11,2
Inportazioak guztira	5,4	-0,8	-20,0	5,8	9,8


(\*) BPGren hazkunderari egindako ekarpena

Iturria: Eustat eta BBVA Research

3: Ikus Eustat. Turismoaren kontu satelitea.

35. Grafikoa


### Ikerketa eta garapena (I+G)



Iturria: INE eta BBVA Research

36. Grafikoa

### Hezkuntza eta BPG biztanleko



Iturria: INE, Ángel de la Fuente eta BBVA Research

## 4. Eskualdekako BPGren estimazioak denbora errealean: Euskadirako emaitzen azterketa

Espainiako ekonomiak azken urteetan izandako bilakaerak jarduera ekonomikoaren beheraldi nabarmena eta eskualdeen arabera aniztasun handia erakutsi du krisi ekonomikoaren hasieratik; horrek guztiak eskualde bakoitzeko ekonomiaren kokapen ziklikoaren azterketa goiztiarra egiteko beharra agerrarazi du, ekonomia horien bilakaera laburbilduko duten eta, aldi berean, Espainiako eta gainerako eskualdeetako ekonomietako agregatuekin alderatzean, nolabaiteko homogeneotasuna bermatuko duten adierazleak erabiliz. Azken urtean, eskaera hori asko handitu da, likidezia tentsioen ondorioz, eskualdeetako ekonomiei buruzko informazioa gero eta osatuagoa eta bereziagoa den arren –bereziki aurrekontuak betetzeari dagokionez–, autonomia-erkidegoek zailtasun handiak baitituzte zorra jaulkitzeko.

Epe erdira eta luzera, INEk argitaratutako Contabilidad Regional de España (CRE) argitalpeneko estimazioen bidez erantzuten zaio, hein batean, informazio-eskaera horri; estimazio horiek eskualde ekonomikoen arteko egiturazko desberdintasunak ezagutzeko aukera ematen dute, hala, bilakaera desberdin horiek ziklo ekonomikoaren faseetan zehar ulertu ahal izateko. Hala ere, datu horiek urtean behin argitaratzen direla eta estimazio ofizialek atzerapenak izaten dituztela kontuan hartuta, zaila da ekonomien jarraipen termiko eta goiztiarragoa egitea. Esate baterako, txosten hau ixteko unean (urteko lehen seihiakoa igarota), 2010eko BPGren hazkundearen datuen lehenengo estimazioa baino ez da ezagutzen, eta estimazioaren aurrerapena urte honetako abenduaren erdialdera arte ez da ezagutuko<sup>4</sup>. Ildo beretik, 2011ko datuen lehenengo estimazioa ez da eskuragarri izango 12-2Hra arte, eta egiturazko informazio baliagarri hori berandu iritsiko da egoeraren jarraipena egin ahal izateko. Epe laburrera begira, eta autonomia-erkidego gutxi batzuen kasuan –Euskadi ere tartean–, autonomia erkidegoetako estatistika-institutuek Hiruhilekoko Kontabilitate Autonomikoari (CTA) buruzko estimazioak argitaratzen dituzte, egoera koitunturalari buruzko informazio-eskaerari modu egokiagoan erantzuteko. Hala ere, CTAREN metodologia ez da homogeneoa ez CREekin ez Espainiako Hiruhilekoko Kontabilitatearekin (CNTR), lehenengoak egoeraren adierazle partzialetan eta autonomia-erkidegoetako Input-Output tauletan oinarritzen baitira, eta, bigarrenen, aldiz, Espainia osoko Input-Output taulak baitituzte abiapunt<sup>5</sup>. Beraz, informazio osagarri moduan kontuan hartu behar diren arren, CTA horiek ez dute aukerarik ematen Espainiako ekonomiako estatistikekin alderaketa zuzenak egiteko, ez eta euren artean alderatzeko ere<sup>6</sup>. Horrez gain, Espainiako Hiruhilekoko Kontabilitatea bezala, autonomia-erkidegoetako estimazioak ere atzerapenez argitaratzen dira. Euskadiko ekonomiaren kasuan, zehazki, 11-2Hko lehenengo estimazioa irailaren erdialdera ezagutuko dugu ziurrenik, INEk Espainiako ekonomiarako argitaratutako datua baino hilabete geroago.

Informazio-gabezia horri denbora errealean erantzuteko, BBVA Researchek autonomia-erkidegoetako hiruhilekoko BPG kalkulatzeko metodologia bat proposatzen du, CREren urteko estimazioekin nahiz Espainiako CNTRekin bateragarri izango dena. Horretarako, hiru hilean behin CNTRren datu historikoen inferentzia estatistikoa (*Backcast*) egin behar da, eta, aldi berean, une horretako hiruhilekorako denbora errealeko estimazioa (*Nowcast*) eta hurrengo hiruhilekoetarako aurreikuspena (*Forecast*). Metodologia horren lehenengo etapa autonomia-erkidego bakoitzeko egoeraren adierazle informazioa konbinatzeko aukera emango duen eredu faktorial dinamikoen multzo baten estimazioan datza, bai adierazle horien maiztasuna desberdina denean, bai erreferentzia-aldiarekiko atzerapenez argitaratzen direnean eta, batzuetan, laginean barne hartutako behaketa-aldi guztiak jasotzen ez direnean ere, datuak bateratu ahal izateko. Bigarren etapan, RAS metodoa edo matrizeen doitze biproportzionala abiaraziko da, estimazioen

4: CREren argitalpenen egutegiak lau estimazio jasotzen ditu (Lehen, Aurrerapena, Behin-behinekoa eta Behin betikoa), eta horien artean desberdintasun esanguratsuak egon daitezke, izan ere, kontabilitateko eragiketak eta agregatuak berrikuspen- eta bereizketa-prozesu luze bati lotuta daude. Xehetasun gehiago nahi izanez gero, ikusi INEk argitaratutako CRE-2000ko ohar metodologikoa.

5: Ikusi, esate baterako, Eustatek argitaratutako Euskadiko Hiruhilekoko Kontabilitatearen ohar metodologikoa.

6: Esan behar da, Euskadiren kasuan, Eustatek argitaratutako CTAko BPGren eta INEk argitaratutako CREko BPGren arteko estatistika-desadostasunak nahiko handiak direla; horregatik, Espainiako beste eskualde batzuekin konparazio zuzena egiterakoan kontu handiz jokatu behar da. Hala bada, azken hazkunde-aldi luzerako, Eustatek BPGren urteko batez besteko hazkundea % 3,9 inguruan kokatu badu (1996-2008ko batez bestekoa), INEk % 3,4an kokatu du. Azken etapan, 2009an BPGk izandako beherakadan 0,1pp-ko aldea dago soilik Eustaten eta INEren estimazioen artean (% -3,8 eta % -3,7, hurrenez hurren), baina, hala ere, 2010eko hazkunde-diferentziala handia da berriro ere, 0,5pp ingurukoa (CTA: % 0,3; CRE: % 0,8).

sendotasun agregatua bermatuko duena<sup>7</sup>. Ondoren, proiektu honen lehenengo etapan abiarazitako eredu faktorial dinamikoaren metodologia laburbildu da, eta Euskadirako estimazioen hasierako emaitzak ere jaso dira.

### Deskribapen metodologikoa

Camacho eta Pérez Quirós (2009) egileek eta, ondoren, Camacho eta Doménech (2010) egileek zehaztutako lerro metodologikoetan oinarrituta abiarazitako eredu faktorial dinamikoa uste honetan oinarritzen da: autonomia-erkidego bakoitzerako aukeratutako adierazle ekonomikoek lotura handia dute elkarren artean eta eskualdeko BPGrekin. Beraz, t aldi bakoitzerako,  $x_t^i$  i-garren adierazlearen hiruheleko hazkunde-tasa bi faktore behaezinen arteko batura moduan deskonposatzen da: faktore komun batek adierazlearen baterako bilakaera ziklikoa jasotzen du,  $f_t^c$ , eta faktore espezifiko edo idiosinkratiko batek adierazle bakoitzaren berezko dinamika jasotzen du,  $f_t^i$ .

$$(1) x_t^i = \beta_i f_t^c + f_t^i$$

Horrez gain, faktore komunaren nahiz faktore idiosinkratikoaren dinamikek prozesu autoerregresiboak egiten dituztela onartzen da, p eta q deritzenak, hurrenez hurren.

$$(2) \begin{aligned} f_t^c &= \Phi_p^c f_{t-p}^c + v_t^c \\ f_t^i &= \Phi_q^i f_{t-q}^i + v_t^i \end{aligned}$$

Non  $v_t^c$  eta  $v_t^i$  behatu ezin diren zaratak diren, independenteak eta segida korrelaziorik gabeak.

Mariano eta Murasawa (2003) egileek proposatutakoaren ildotik, BPGren hazkunde-tasak maiztasun handieneko adierazpideen batura ponderatu gisa hurbiltzen badira, aurreko eredu espazio-egoera moduan berridatz daiteke, eta, Kalmanen iragazkia erabilia, egiantz handienaren arabera estima daiteke; horrek adierazle horien maiztasuna desberdina izatean, erreferentzia-aldiarekiko atzerapenez argitaratzen direnean edota laginaren behaketa-aldi guztietarako datuak existitzen ez direnean sortutako arazoak konponduko lituzke. Gure kasuan, CREko BPGren urteko hazkunde-tasak,  $\bar{y}_t^{CRE}$ , t urteko laugarren hiruhelekoari dagokionean soilik beha daitezkeenak, euren hiruheleko hazkunde-tasetatik,  $y_t^{CRE}$ , inoiz behatzen ez ditugunetatik, abiatuta hurbildu dira, eta Kalmanen iragazkiaren bidez inferitu dira. Zehazki,  $y_t^{CRE}$  eta  $\bar{y}_t^{CRE}$  t aldiko prezio iraunkorretako BPG eta t aldira arte metatutako prezio iraunkorretako urteko BPG direnean, honako hau dugu:

$$(3) \bar{y}_t^{CRE} = y_t^{CRE} + y_{t-1}^{CRE} + y_{t-2}^{CRE} + y_{t-3}^{CRE}$$

edo, horren baliokidea,

$$(4) \bar{y}_t^{CRE} = 4 \left( \frac{y_t^{CRE} + y_{t-1}^{CRE} + y_{t-2}^{CRE} + y_{t-3}^{CRE}}{4} \right)$$

(4) ekuazioaren batezbesteko aritmetikoa batezbesteko geometrikotik abiatuta hurbil badaiteke,

$$(4) \bar{y}_t^{CRE} = 4 (y_t^{CRE} \cdot y_{t-1}^{CRE} \cdot y_{t-2}^{CRE} \cdot y_{t-3}^{CRE})^{1/4}$$

orduan, urteko hazkunde-tasak hiruheleko hazkunde-tasen batezbesteko ponderatutik abiatuta deskonposa daitezke. (4) ekuazioko logaritmoen laugarren diferentzia hartuta, hauxe dugu:

$$(5) \ln \bar{y}_t^{CRE} - \ln \bar{y}_{t-4}^{CRE} = 1/4 (y_t^{CRE} + y_{t-1}^{CRE} + y_{t-2}^{CRE} + y_{t-3}^{CRE})$$

eta termino horiek honela definituta:  $\bar{y}_t^{CRE} = \ln \bar{y}_t^{CRE} - \ln \bar{y}_{t-4}^{CRE}$  eta  $y_t^{CRE} = \ln y_t^{CRE} - \ln y_{t-1}^{CRE}$ , honela berridatz dezakegu (5) ekuazioa

$$(6) \bar{y}_t^{CRE} = 1/4 y_t^{CRE} + 2/4 y_{t-1}^{CRE} + 3/4 y_{t-2}^{CRE} + y_{t-3}^{CRE} + 3/4 y_{t-4}^{CRE} + 2/4 y_{t-5}^{CRE} + 1/4 y_{t-6}^{CRE}$$


lehen adierazi dugunez, CREko BPGren urteko hazkunde-tasak deskonposatzen ditu, hiruheleko hazkunde-tasen batezbesteko ponderatutik abiatuta.

<sup>7</sup>: Ikus M.B. Bacharach, "Estimating Nonnegative Matrices from Marginal Data", International Economic Review, 6. lib. (1965), 294-310. or.




Eskualdeetako ekonomien kasuan CREko BPGren hiruhilekoko hazkunde-tasarik behatzen ez dela kontuan hartuta, goian deskribatutako hurbilketaren doitzearen egokitasuna egiaztatzeko bi ariketa egin dira. 37. grafikoan, 1981 urtetik Espainiako ekonomiaren urteko hazkunde-tasak jaso dira, (6) ekuazioan oinarrituta eta CNTRren hiruhilekoko datuak erabiliz kalkulaturako hurbilketarekin batera. Bestalde, 38. grafikoan, urteko hazkunde-tasen hurbilketaren erroreak adierazi dira, eta tasa horiek urtero % -10 eta % 10 arteko tartean (hau da, hiruhileko tasan % -2,5 eta % 2,5 artean) hazten diren 100 ekonomiaren multzo baten arabera simulatu dira. Bi ariketetan ikusienez, Euskadiko ekonomian azken 3 hamarkadetan jasotako hazkunde-tasekin bateragarriak izango diren mailetan (hau da, urteko % -3,7 eta % 5,9 arteko hazkunde tasa, CREren arabera), (6) ekuaziotik abiatuta kalkulaturako hurbilketa-erroreak oso txikiak dira. Zehazki, emaitzek adierazten dutenez, Euskadin 2010. urtean erregistraturako hazkunde-tasarekin, hau da, % 0,8ko hazkunde tasarekin, hurbildutako tasa soilik 0,02pp handiagoa litzateke.

37. Grafikoa  
**Espainia: BPGren hazkunde (%u/u)**



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

38. Grafikoa  
**Hiruhilekoko tasetan eta (6) ekuazioan oinarrituta hurbildutako urteko hazkunde-tasen erroreen simulazioa**



Iturria: BBVA Research

Aurreko deskonposaketa lortu ondoren, urteko CREko BPGren, hiruhilekoko faktore komunaren eta horren faktore idiosinkratikoaren arteko erlazioa adieraz daitezke (1.a 6.ean ordezkaturaz),

$$(7) \bar{y}_t^{CRE} = \beta_t^{CRE} (1/4 f_t^c + 2/4 f_{t-1}^c + 3/4 f_{t-2}^c + f_{t-3}^c + 3/4 f_{t-4}^c + 2/4 f_{t-5}^c + 1/4 f_{t-6}^c) + (1/4 f_t^{yCRE} + 2/4 f_{t-1}^{yCRE} + 3/4 f_{t-2}^{yCRE} + f_{t-3}^{yCRE} + 3/4 f_{t-4}^{yCRE} + 2/4 f_{t-5}^{yCRE} + 1/4 f_{t-6}^{yCRE})$$

eta, hala, (1) eta (2) ekuazioetan deskribatutako eredua espazio-egoera forman idatz daitezke, eta, Kalmanen iragazkia erabiliz, behatu gabeko faktoreak kalkula daitezke, CREko BPGren hiruhilekoko hazkunde inferitu daitezke eta eredian barne hartutako adierazleen hiruhilekoko hazkundearen denbora errealeko aurreikuspenak egin daitezke.

### Hasierako emaitzak


Aurreko paragrafoetan deskribatutako eredu faktorial dinamikoaren hasierako hipotesien ildotik, estimazioan barne hartutako adierazleak aukeratzeko irizpide nagusia CREko BPGren hazkunde-tasekin korrelazio handia izatea da; bigarren irizpidea nahiko zabala litzatekeen lagin-aldi baterako egokiak izatea da, aldakortasun zikliko nahikoa jaso dezaten<sup>8</sup>; eta, azkenik, hirugarrena, argitalpenaren atzerapena ez izatea dagokion hiruhilekoarekiko Eustatek argitaraturako CTako BPGrena baino handiagoa. Hala, bada, ereduaren bertsio honetan erabilitako jardura eta enpleguari buruzko adierazleen artean daude: Gizarte Segurantzako afiliatzea, Industria Ekoizpeneko Indizea, guztizko bidaiari kopurua eta ondasunen esportazioak termino errealetan. Horrez gain, Eustatek argitaraturako CTako BPG ere erabili da, INEK argitaraturako CREko BPG kalkulatzeko metodologia homogeneoa erabiltzen ez badu ere, euskal ekonomiaren aldakortasun ziklikoari buruzko informazio baliotsua jasotzen duelako. Azkenik, Espainiako ekonomiaren hiruhilekoko BPG ere jaso da, eskualdeen arteko merkataritza-fluxuen eragina nahiz euren artean komunak diren eskariaren shock exogenoetatik sortutako aldakortasun ziklikoa biltzeko.

8: Irizpide horren arabera, hainbat aldagai kanpoan utzi dira, hala nola INEK argitaraturako Zerbitzu Sektoreko Jarduera Adierazlea; adierazle hori 2005. urtetik dago eskuragarri autonomia-erkidegoetan.

Deskribatutako eredua txosten hau ixteko unean ezagutzen genituen euskal ekonomiari buruzko datuen arabera kalkulatu denean, 39. grafikoan ikus daiteke faktore komunaren urtetik urterako bilakaera bat datorrela Euskadiko ziklo ekonomikoekin, INEk argitaratutako CREko BPGren urteko hazkundeari buruz jasotako zifren arabera. Bestalde, 40. grafikoan, Eustatek argitaratutako CTako BPGren urtetik urterako hazkunde-tasak nahiz ereduak interpolatutako CREko BPGrenak jasotzen dira. Grafikoan ikus daitekeenez, CRE urtean behin argitaratzen den arren, interpolazioak CREko BPGren epe laburreko dinamika, CTako BPGrekin lotura estua duena, nahiko modu egokian jasotzeko aukera ematen digu, baina, azken horrek ez bezala, Espainiako ekonomian erregistratutako edo beste autonomia-erkidego batzuetarako inferitutako hiruhilekoko datuekin zuzenean konparatzeko aukera emango digu.

39. Grafikoa


**Euskadi: CREko BPGren urteko hazkundea eta faktore komunaren bilakaera (% u/u)**



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

40. Grafikoa

**Euskadi: BPG (%u/u)**



Iturria: BBVA Research, INEko eta Eustateko datuekin

1. koadroan, (1) ekuazioko  $\beta$  koefizienteen estimazioak adierazi dira –hautatutako adierazle ekonomiko bakoitzaren hiruhilekoko hazkunde-tasen gainean faktore komunak duen eragina jasotzen dute–, horien desbiazio tipikoekin batera. Kasu guztietan, koefizienteek espero zitekeen zeinua dute<sup>9</sup>, eta, beraz, aldagai autonomikoen izaera proziklikoa erakustearekin batera, gainerako autonomia-erkidegoekiko komunak diren eskariaren shock exogenoen esanguratasuna eta euskal ekonomiak kanpora begira duen esposizioa ere erakusten dute. Ikuspegi estatiko soil batetik, estimatutako koefizienteen neurria aldagai bakoitzaren aurreikuspen ahalmen gisa interpreta daiteke; hori kontuan izanda ere, ez da ahaztu behar denbora errealeko estimazioan, datuen argitalpenaren atzerapenak berebiziko garrantzia duela. Alde horretatik, IPIk edo ondasunen esportazioek, Euskadiko BPGrako, afiliatzeak baino aurreikuspen ahalmen handiagoa izan badezakete ere, erreferentzia-aldi berbererako, azken aldagaia lehenengo biak baino hilabete lehenago argitaratzen da, hala, ereduaren egorari buruzko informazio baliotsua eta goiztiarra eskainiz.

5. Koadroa

**Euskadi: faktore komunak adierazleen gain duen eragina**

Aldagaia	BPG (CRE)	BPG (CTA)	Afiliatzeak	IPI	Esportazioak	Turismoa	BPG (Espainia)
beta	0,390 (,075)***	0,418 (,049)***	0,344 (,055)***	0,369 (,067)***	0,219 (,091)**	0,113 (,102)	0,432 (,043)***


Oharra: errore estandarra parentesi artean. \* esanguratsua % 10ean; \*\* esanguratsua % 5ean; \*\*\* esanguratsua % 1ean  
Iturria: BBVA Research

9: Turismoa izan ezik, aldagai guztiak estatistikoki esanguratsuak dira, ohiko esangura mailekiko (%10etik % 1era).

Interpolatutako datuetatik lortutako emaitzak asebetetzeko modukoak diren arren, ereduak aurreikuspenak egiteko duen ahalmena aztertze aldera, denbora errealeko beste ariketa bat egin da. Horretarako, hilabete bakoitzeko hogeita hamargarren egunerako datu-baseak sortu dira 2007ko abendutik, eta data bakoitzerako datu ezagunak zirenak bildu dira. Ondoren, eredu berrestimatu da eta aurreikuspenak egin dira datu-base horietako bakoitzarekin. 41. grafikoak, 2007-2010 urteetako CNRko BPGren hazkundearen aurreikuspen-erroreak jasotzen ditu, estimazioa egin den egunera arte ezagutzen ziren urteko serieen desbiazio tipikoen bitartez adierazita<sup>10</sup>. Grafikoan ikus daitekeenez, errorearen termino absolutuak, kasu guztietan, desbiazio tipiko baten azpikoak dira; are, 2010ekoa salbu, desbiazio tipikoaren erdiaz azpikoak; horrek adierazten du aurreikuspen-erroreak oso neurri txikikoak direla -CREko BPGren aldakortasun inplizitua kontuan hartuta-. Bestalde, 42. grafikoak, hiruhileko bakoitzerako behatutako CTAko BPGren datua jasotzen du 08-1Htik hasita, eta baita ondoko aurreikuspenak ere (kasu bakoitzean ezaguna zen informazioan oinarrituta): i) aurreko hiruhilekoko azken hilabetekoa (*Forecast*); ii) erreferentzia-hiruhilekoko azken hilabetekoa (*Nowcast*); eta, iii) hurrengo hiruhilekoko bigarren hilabetekoa (*Backast*), CTAren datua argitaratu aurrekoa, hain juxtu. Ikus daitekeenez, erreferentzia-aldiaren aurreko hiruhilekoan egindako estimazioarekin (hau da, datua argitaratu baino 6 hilabete lehenagokoarekin), nahiko ondo hautematen da CTAko BPGren epe laburrerako joera, eta aurreikuspen horren errore estandarra 0,29pp ingurukoa da. Modu berean, aztertu nahi den aldiari buruzko informazio gehiago ezagutu ahala aurreikuspenen doitzea hobetu egiten dela ere ikus dezakegu, eta *Nowcast* eta *Backast* aurreikuspenen errore estandarrek 0,14pp eta 0,13pp ingurukoak dira, hurrenez hurren. Laburbilduz, ereduaren emaitzek, lagin barrukoek nahiz denbora errealekoek, modu egokian irudikatzen dute Euskadiko jarduera ekonomikoaren bilakaera. Aurrera begira, ereduaren emaitza berriek aurrekusten dute euskal ekonomiak suspertzen jarraituko duela, oraindik ere erritmoa nahiko motela izango den arren, eta BPGren hazkundera % 1,3 ingurukoa izango da, ziurrenik, aurtengo ekitaldi ekonomikoan.

41. Grafikoa


**Euskadi: CREko BPGren aurreikuspen-erroreak (desbideratze tipikoetan)**



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

42. Grafikoa

**Euskadi: CTAko BPG (%u/u)**



Iturria: BBVA Research, Eustaten oinarrituta

**Erreferentziak**

Bacharach, M.B. (1965): "Estimating Nonnegative Matrices from Marginal Data", *International Economic Review*, 6: 294-310.

Camacho, M., eta R., Doménech (2010): "MICA-BBVA: a factor model of economic and financial indicators for short-term GDP forecasting", BBVA Economic Research Working papers, 1021.

Camacho, M., eta Pérez Quirós, G. (2009): "Introducing the Euro-STING: Short Term Indicator of euro area Growth", *Journal of Applied Econometrics*, 25: 663-694.

Mariano, R., eta Murasawa, Y. (2003): "A new coincident index of Business cycles based on monthly and quarterly series", *Journal of Applied Econometrics*, 18: 427-443.

Stock, J., eta Watson, M. (1991): "A probability model of the coincident economic indicators", in Kjal Lahiri eta Geoffrey Moore editors, *Leading economic indicators, new approaches and forecasting records*. Cambridge University Press, Cambridge.


10: Ariketa honetarako erreferentzia gisa hartu dira urte bakoitzeko abenduak 30eko datu basearekin egindako estimazioa, aurreko urteko BPGz (CRE) bain, gainontzeko adierazleen kasuan, ekitaldiko 3H-rainoko datuak dituen.

## 5. Hazkunde ekonomikoa eta langabezia Euskadin

Euskadiko eta Espainiako ekonomiek bizi dituzten desorekak zuzentzeak hazkunde ekonomiko ahula ekarriko du aurrera begira; sektore publiko eta pribatuaren gehiegizko zorpetzeari pixkanaka buelta ematea eta higiezinaren gaineko jarduera doitzeko prozesua dira zuzenketa horren ezaugarriak. Ekonomian aurreikusitako bilakaera ahul hori are kezagarriagoa da lan-faktorearen erabilera-intentsitatea handiagoa den heinean, eta, bereziki, zenbat eta langabezia-tasa hazkunde ekonomikoaren aurrean sentiberagoa izan. Beraz, epe laburrean eta erdian langabezia-tasak izango duen maila handiaren arrazoiak ulertzeko, funtsezkoa da langabeziaren dinamika eta horrek jarduera ekonomikoaren bilakaerarekin duen erlazioa ezagutzea.


Azken bi atzeraldietan hazkunde ekonomikoak eta langabeziak izan duten bilakaerak adierazten du langabezia-tasak BPGren hazkundearekiko erantzun txikiagoa izan duela Euskadin Espainian baino<sup>11</sup>. A eta AA grafikoez erakusten dute Euskadiko UEEZ langabezia-tasa<sup>12</sup> Espainiakoa baino gutxiago handitu zela 1992tik 1994ra (6,0 puntu portzentual -pp- eta 6,6 pp, hurrenez hurren), jarduera ekonomikoak uzte handiagoa izan zuen arren (% -3,1 Euskadin eta % -2,5 Espainian). Bi lurralde horien arteko aldea, langabezia-tasaren jokabideari dagokionez, areagotu egin da 2008. urte hasieratik. BPGk antzeko jaitsierak izan arren (% 4,7 Euskadin, eta % 4,9 Espainian), langabezia-tasa erdia baino gutxiago handitu da Euskadin (5,4 pp), Espainiakoarekin alderatuta (11,2 pp).

43. Grafikoa  
BPG (UEEZ datuak)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

44. Grafikoa  
Langabezia-tasa (UEEZ datuak)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

Azterketaren xede den aldia handituz, atzeraldiez gain, garai hedakorrek ere kontuan hartzen direnean, argi ikusten da langabezia-tasaren bilakaeraren eta hazkunde ekonomikoaren arteko unebereko erlazioa -Okunen legea izenez ezagutzen da<sup>13</sup>- zehazgabeagoa dela Euskadin Espainiako lurralde osoan baino. Hala, bada, Z eta ZZ grafikoez erakusten dute langabeziaren eta hazkundearen arteko unebereko korrelazioa 0,9tik gorakoa dela Espainian, eta, Euskadin, aldiz, dispersioa handiagoa dela, eta, horren ondorioz, korrelazioa ere apur bat txikiagoa dela (0,7koa 81-1Htik eta 0,8koa 91-1Htik).


11: Datu konparagarriak lortzeko helburuarekin, Contabilidad Regional de España (CRE) argitalpeneko 1986ko datuak INEk prestatutako 1995-2009 sail homogeneoarekin lotu dira. Ondoren, urteko kopuruak hiru hilekoetara bihurtu dira, argitalpen honetako 4 atalean adierazitako eredu faktorial dinamikoan oinarrituta, eta erantsitako oinarria CREren nahiz Hiruhilekoko Kontabilitate Nazionalaren (CNT) arabera gordeta. Modu horretan, BPGren segidak izango ditugu, Euskadiko ekonomiaren azken bi atzeraldia barnean hartuko dituztenak. Langabeziari dagozkion kopuruak, 70eko hamarkadaren amaieratik eskuragarri daudenak, biztanleria aktiboaren inkestatik (EPA) hartuak dira.

12: Urtarokotasun eta egutegi-eraginetatik zuzendutako langabezia-tasa.

13: Ikusi Belmonte eta Polo (2005), Okunen legeari eta Espainiarako estimazioei buruzko literatura empirikoaren berrikuspena.

45. Grafikoa


**Euskadi: BPGren hazkundea eta langabezia-tasaren aldaketa (81-1H - 10-4H)**



1981etik 2000ra bitarteko langabezia-tasa berregin dugu, 2001ean langabetuaren definizioa aldatu zelako  
Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

46. Grafikoa

**Espainia: BPGren hazkundea eta langabezia-tasaren aldaketa (81-1H - 10-4H)**



1981etik 2000ra bitarteko langabezia-tasa berregin dugu, 2001ean langabetuaren definizioa aldatu zelako  
Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

45 eta 46 grafikoetako erregresio-zuzenen inguruko dispersioak adierazten du langabeziaren eta hazkundearen arteko unebereko erlazioa ezegonkorra dela, hau da, langabezia-tasak jarduera ekonomikoaren bilakaeraren aurrean emandako erantzuna -Euskadin nahiz Espainian- ez dela konstantea izan denboran zehar. Hori frogatzeko, langabezia-tasak BPGren hazkundearen aurrean duen elastikotasuna kalkulatu da, horretarako 60 hiru-hilekotako leiho mugikorra erabiliz. Emaitzen arabera, azken hiru hamarkadetan langabezia-tasak hazkundearen aurrean izan duen unebereko erantzuna -balio absolutuan- 0,2 pp inguru handitu bada ere bi lurralde horietan, biak alderatuz gero, Euskadikoak txikiagoa izaten jarraitzen du (ikusi 47 eta 48 grafikoak). 80ko hamarkadan gora egin ondoren, langabezia-tasak BPGrekiko izan duen unebereko elastikotasuna egonkorra izan da Euskadin, 90eko urteetako krisia amaitu zenetik gaur egungo krisia hasi arte. Azken krisialdiaren hasieran, langabezia-tasak hazkundearekiko izandako erantzunak behera egin zuen nabarmen -Espainian ez bezala-, eta krisiaren aurreko baliora itzuli zen 2009ko hasieratik.

2008. urtean Euskadiko langabezia-tasaren elastikotasunak izandako jokabide kontraziklikoaren arrazoiak ez da marjina intentsiboa (lan egindako ordu kopurua) doitu izana<sup>14</sup>; ez da, ezta ere, langile bakoitzeko soldata-kostua murriztu izana<sup>15</sup>, edo langabetuek lan-merkatua uzteko probabilitatea handitzea nahiz biztanle ez-aktiboek parte hartzeko joera murriztea<sup>16</sup>. Horren arrazoiak enpleguaren erantzun positiboan bilatu behar da, % 0,5 handitu baitzen 2008an, Espainian % 0,5 txikitu arren. Enpleguaren elastikotasun txikiago horren jatorria enpresetan gertatutako 'lan-faktorearen altxortze-efektua' izan daiteke (labour hoarding): lan egiteko adina duen biztanleriaren murrizketa -gaur egungoa eta aurreikusitakoa- kontuan hartuta, krisiaren lehenengo uneetan langile kopuruari eusteko erabakia hartu ahal izan dute enpresek, langile falta erlatiboaren ondorioz -nagusiki, langile gaituen falta- eta atzeraldiaren iraupenari buruzko zalantzen ondorioz. Horrez gain, Euskadin botere sindikala handiagoa da<sup>17</sup>, eta aldi baterako enplegu-etendurako dossierrek garrantzi handia izan dute<sup>18</sup>; horregatik, beharbada, enpleguaren doitzea mugatu du horrek.

14: Ez da aldatarik hauteman asteko batez besteko benetako lanaldian Euskadin, egungo krisialdiaren hasieran. Biztanleria Aktiboaren Inkestako (EPA) datuek adierazten dutenez, astean lan egindako benetako lan-orduen kopurua % 0,2 baino ez zen murriztu 2008an. Modu berean, lanaldia murrizteko neurriek eragindako langileen ehunekoak, enplegua erregulatzeko dossierretan inplikaturako langileen kopuru osoarekin erkatuta, % 0,6koa izan zen Euskadin 2008an, eta Espainian, aldiz, % 1,8koa.

15: Lan Kostuaren Hiruhileko Inkestaren arabera, soldata-kostu izendatua langileko % 5,7 handitu zen Euskadin 2008. urtean, Espainian baino 0,7 pp gehiago. Orduko soldata-kostua ere Estatu espainiarrean baino gehiago hazi zen Euskadin (% 5,8 Euskadin eta % 4,8 Espainian).

16: EPAren fluxuei buruzko datuek erakusten dutenez, langabeziatik jarduerarik ezera igarotzeko probabilitatea ondoko ondoko bi hiru-hilekotan ez zen aldatu Euskadin 2008. urtean (Espainian 0,1 pp hazi zen); aldiz, jarduera ezetik langabeziara igarotzeko probabilitatea puntu bat jaitsi zen, espainiar biztanle ez-aktiboena 4,5 pp jaitsi zen bitartean.


17: Laneko Bizi Kalitatearen Inkestak, Espainiako Lan eta Immigrazio Ministerioak (MTIN) egindakoak, adierazten duenaren arabera, Euskadiko dentsitate sindikala, hau da, lanean ari direnen eta sindikatu bateko kide direnen ehunekoak, batez besteko nazionala baino 3 pp handiagoa zen 2008an (% 20,4koa, % 17,4ren aurrean).

18: 2008an, aldi baterako etendura ezarri zitzaizen langileen ehunekoak 17,6 pp egin zuen gora, eta enplegu-dosierrek eragindako guztien % 86,1era iritsi zen. Espainian, etendura-espedituek ez ziren hainbeste hazi 2008an (15,3 pp), eta horien garrantzi erlatiboa ere ez zen hain handia izan (% 70,8).

